

Erleen Azken Ziztada liburua KEPA IRIBAR idazle eta kazetariarekin BIGARREN KAFEAN



2026 OTS. 17 - 12:05h

Bigarren Kafea




«Buruan nituen gai ezberdinak josiz etorri zitzaidan liburuaren ardatza»

Lehen eleberria argitaratu eta hiru urte pasatxora argitaratu du Kepa Iribar Elizegik bere bigarren lana. Erleen azken ziztada izenburupean iragana eta oraina uztartu ditu getariarrak, aurreko lana bezala bere herri inguruan kokatu duen nobela beltzean.



«Buruan nituen gai ezberdinak josiz etorri zitzaidan liburuaren ardatza»



«Aurreko liburua Elkanoren lehorreratzearen bueltan gertatzen zen zerbaiten inguruan idatzi nuen. Orduan istorioa jada bazegoen. Oraingo honetan berriz, sortzea egokitu zait». Eta sortzen hasita, gai bat baino gehiago jorratu ditu Iribarrek. «2022ko udan komunikabideetan zebiltzan gaiak hartu nituen ardatz modura. Ukrainako gerra, eskuin muturraren gorakada eta migratzaileen krisia».

1944an hasten da eleberria. Alemaniaren soldadu talde batek Bidasoa ibaia zeharkatu behar du txalupa batean guardia zibil baten laguntzarekin. Soldadu taldeko buruak errezeleok ditu taldeko kide batekin eta guardia zibilaren laguntzaz, Ondarretako kartzelan sartzen dute. Hortik gaur egunera dator liburua eta Iribarren 72 ordu lehen lanean protagonista izan zen Idoiaren senitarteko zahar batek duen osasun arazo baten aurrean laguntzera joan den Aitor Letamendia detektibiek, adineko pertsona horren enkargu bat jasotzen du, Getarian Moussa bahitua izan den momentuan.

Nobelaren ardatz den istorio bakoitza modu ezberdinean idatzi du eta hori erronka modura hartu du Iribarrek. Besteren artean, soldadu alemaniaren baten egunerokoa ere ageri da liburuan. Hasieran apur bat kosta zitzaiola aipatu du baina gero gustura egin duen zerbait izan da.

Entzun Kepa Iribar Elizegirekin Bigarren Kafean izan dugun solasaldia.

PUBLIZITATEA

naiz:

Eguneko garrantzitsuen ardatz zure postan

naiz: buletina

Apuntatu hemen

PUBLIZITATEA

GUTUN
ZURIA
BILBAO 2026

naiz:

Info

Euskal Herria
Ekonomia
Mundua
Naiz+
Bilbotarra
Donostiarra
Gasteiztarra
Iruindarra

Kirolak

Futbola
Saskibaloia
Eskubaloia
Pilota
Txirrindularitza
Errugbia
Motoak
Herri Kirolak
Arrauna

Iritzia

Editoriala
Zugazart
Artikuluak
Zuzendariari eskutitzak
Iritzi Blogak

Kultura

Bideoak

Argazki galeriak
Audioak

Eskelak
Denda
Eguraldia

irratia ZUZENEAN

musika ZUZENEAN

RADIO ZUZENEAN

Jaso gure newsletterra

Jakin beharreko albisteak besterik ez dizugu bidaliko. Spamik gabe.

Emaila

BIDALI

Webgune hau reCAPTCHA-k babestuta dago eta Google Pribatutasun Politika eta Zerbitzu Baldintzak aplikatzen dira.